

Edozein negozio-eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak edo erakundeak ondo jardun dezan. Funtsezko baliabideak bezalaxe, funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko.

Horrela banatzen dira funtsezko jarduerak: produkzioa, arazoak konpontzea, plataformako edo sareko jarduerak...

Laburbilduz, enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak manten ditzan eta, azkenik, diru-sarrerak sor ditzan egin beharreko jarduerak dira funtsezko jarduerak.

Ondoko hauek dira funtsezko jarduerak: produkziozko jarduerak, arazo konponketako jarduerak eta plataformako edo sareko jarduerak.

Edozein negozio eredu aurrera eramateko beharrezkoak dira honako jarduera hauek burutzea: Balorezko proposamena garatzea, bezeroarengana iristea, bezeroarekin harremanetan jartzea eta diru sarrerak lortzea.

Garrantzitsua da enpresa barruan egin daitezkeen zereginak identifikatzea.

Badaude kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen funtsezko jarduerak, beti enpresa barruan egin beharrekoak, eta honela sailkatzen dira, batetik produkzioa, bestetik arazoak konpontzea eta azkenik plataformako edo sareko jarduerak.

Produkzioa, diseinua, kantitate jakin batzuetan produktua egitea eta entregatzea da. Eta produkzio jardueren barnean, honako hauek bereizten dira, produktuaren diseinua produktua kantitate jakin batzuetan egitea, produktuaren kalitatea eta produktu beraren entrega.

Arazoak konpontzeko jarduerak, bezeroen arazoak konpontzeaz arduratzen dira. Bestek beste, hauexek dira mota horretako jarduerak egiten dituzten enpresak: zerbitzuetakoak, ospitaleak, aholkularitzakoak, eta abar.

Plataformako jarduerak, elkarrekiko menpekoak diren bi segmentutik gorakoengana zuzentzen diren enpresen kasua da. Plataforma eta sareko jarduerak, plataforma teknologiko eta internet bidez enpresetan dira nagusi. Eredu hauetan, jarduera hauek bereizten dira, plataformaren gestioa, etengabeko mantenua eta plataformaren promozionatzea.

Beste enpresa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak ere badaude, beste enpresa batzuen esku utz daitezke, enpresak berak egiteak ez diolako balio erantsirik ematen.

Eta **kanpoko enpresen esku utzi ezin daitezkeen jarduerak** ere, gure enpresaren muina osatzen dutenak. Babestu egin behar ditugu, daukagun aktiborik garrantzitsuena direlako.

Gure enpresan egin beharko genituzkeen jarduerarik garrantzitsuenak negozio-ereduak funtziona dezan honakoak izango lirateke.

Gure enpresan egin beharreko jarduerarik garrantzitsuenak produkzio jarduerak izango lirateke, negozio-ereduak funtziona dezan, diseinua, kantitate jakin batzuetan produktua egitea eta entregatzea ezinbestekoa delako, hau da, zenbat produzitu nahi dugun finkatu behar dugu, produzitzen dugun hori kalitatezkoa izateko eta epe batzuen barnean entregatu ahal izateko. Bestalde, produkzioa mantentzea izango da gure eginkizunetako garrantzitsuena, izan ere, ezinbestekoa da enpresa konstantea izatea eta konstanteki produzitzea, gure enpresaren fidagarritasuna mantentzeko. Produktuak ekoizteari uzten badiogu, kontsumitzaileak galtzeko arriskua izango dugu, hau da erosleak, enpresa zutik mantentzeko ezinbestekoak direlako hauek eta sortzen dituzten irabaziak. Beraz, guretzat produkzio egoki bat izatea eta hori mantentzea lortzea izango da garrantzitsuena, etengabe produktu desberdinak produzitu eta merkaturatzea, alegia.